

## GOGORATU:

Tuberkulosi diagnostikoko probak **DERRIGORREZKOAK ETA DOAKOAK** dira.

**AHUNTZ GUZTIAK** identifikatu eta erregistratu behar dira.

Ez eskuratu osasun egoera frogatzen duen **dokumentazioa eta identifikaziorik** gabeko animaliarik.

**Ahuntzak osasuntsu** mantantzeak **Nafarroako osasun publikoa** hobetzen laguntzen du.



## HELBURUA: AHUNTZ OSASUNTSUAK

2020. URTEAN, TUBERKULOSIAREN DIAGNOSTIKOKO PROBAK EGINGO DIRA NAFARROAKO AHUNTZ GUZTIETAN

NAFARROAN TUBERKULOSIA DESAGERRARAZTEKO.

OSASUN PUBLIKORAKO ETA ABEREEN OSASUNERAKO.

Ahuntzen jabea bazara, hau egin behar duzu:

1. Erregistartu
2. Identifikatu
3. Erregistroak mantendu
4. Urteko probak egin

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra  
Sección de Sanidad Animal  
[sanidad.animal@navarra.es](mailto:sanidad.animal@navarra.es)



# HELBURUA

# AHUNTZ OSASUNTSUAK

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra  
Sección de Sanidad Animal







## AHUNTZA NAFARROAN

### ZENTSOA NAFARROAN:

**13.128 ahuntz 613 ustiategietan**

Funtzio anitzetarako erabiliak:  
Artaldeetan laguntzaile.  
Esnea ekoizteko.  
Lur eremuen mantenurako.  
Jolas jarduerarako.

Ahuntza oso moldagarria den animalia da, arina, iheskorra, batzuetan Kontrolatzeko zaila.

Elikagaiak, antxumeak eta esnea, ekoizteaz gain, landaretza kontrolatzeko eta suteen prebentziorako eta, bai lur pribatu, bai publikoetan garbiketarako erabilgarria da.



## TUBERKULOSIA

AHUNTZEI ERAGITEN DIETEN ZENBAIT GAIXOTASUN, GIZAKIEI ERE ERAGIN DIEZAIOKETE, HALA NOLA BRUCELOSI ETA TUBERKULOSIA.

### TUBERKULOSIA:

- ✂ Gaixotasun infekzioso kronikoa da.
- ✂ Batez ere behi-azienda eta ahuntzeei, eta etxeko eta mendiko bestelako ugaztunei eragiten die.
- ✂ Jendeari ere eragiten dio (zoonosi), beraz, osasun publikoko arazoa da.
- ✂ Linfonodetan eta biriketan eragiten ditu lesioak batez ere.

**Gizakiok arnasaren bidez** edo ahuntz esne gordina edanez kutsatu ahal gara.

Horregatik da horren garrantzitsua ahuntzak osasuntsu mantentzea.



## PREBENTZIOA

GURE AHUNTZAK OSASUN ONEAN MANTENTZEAZ ZIURTATU BEHAR DUGU HORRETARAKO KONTROL SANITARIOAK EGIN BEHAR ZAIZKIE.

ABELTZANTZA ZERBITZUAK, 2020AN INDARTUKO DEN KONTROL ETA PREBENTZIO KANPAINA BAT ABIAN JARRI ZUEN, NAFARROAKO AHUNTZ GUZTIEI TUBERKULOSIAREN DIAGNOSIAREN ZAKO PROBA EGINDEN ZAIELARIK.

AHUNTZ-AZIENDAREN JABEA BAZARA EZ AHAZTU:

**ERREGISTRA EZAZU IDENTIFIKATU**

**ERREGISTROA MANTENDU**

**URTEKO PROBAK EGIN**